



# Andramaixek 2022

Azkoitia · Abuztuaren 14tik · 18ra



## Alkatearen *Agurra*

Herriko festak. Gure Andramaixek. Javier Zubizarreta



Herriko jardueren artean, festa egun batzuk ezin dute falta. *Andramaixik* gabe bi urte egon ostean, aurten jaietz berririko gozatzeko aukera izango dugu gure familiekin, lagunekin eta herritarrekin. Eduki berezikoak dira, *axkoittiar* zaporekoak. Askotariko proposamenak eta poztasuna ekartzen dizkigute. Gure herriko festak. Guztionak eta guztiontzat.

Alkate gisa, hilaren 14an, udaletxeko balkoira igoko naiz seigarren urtez, eta azkeneko aldiz. Faltan botako dut egun horretan plaza gainezka ikusteak eragiten didan emozioa, "Ondo pasau Andramaixek!" entzuten dugun bitartean. Badirudi momentu horretan hasten dela dena. Plazerra izan da zuek guztiokin une horiek partekatzea.

Atera gaitezen kalera ondo pasatzeko intentzio hoberekin. Zaindu gaitezen eta zaindu ditzagun ondokoak errespetuz, festak ez daitezen inorentzat amesgaizto bihurtu.

*Dentro de la actividad de un pueblo no pueden faltar unos días de fiesta. Después de dos años sin nuestros queridos Andramaris volvemos a poder disfrutarlos con nuestras familias, amigos y vecinos. Fiestas con un contenido especial, con sabor a azkoitiarrismo, de gran variedad y alegría. Las fiestas del pueblo. Fiestas de todas y de todos, y para todas y todos.*

*Como alcalde, el día 14 subiré al balcón del Ayuntamiento por sexto año consecutivo y por última vez. Echaré de menos ese subidón que se siente al ver la plaza a rebosar, al son de "Ondo pasau Andramaixek!". Es como si en ese instante comenzara todo. Ha sido un placer inmenso compartir esos momentos con todas y con todos vosotros.*

*Salgamos a la calle con la mejor de las intenciones de pasárnoslo bien. Cuidémonos y cuidemos con respeto a los de alrededor para que la fiesta no se convierta para nadie en un recuerdo amargo.*

*Ondo pasa, pasatu gabe!*

*¡A pasarlo bien, sin pasarse!*

## Abuztuak 13

### Larunbata

**11:00 Martittera igoera**, Herriko plazatik abiatuta. Jokin Ormaetxea txirrindulari elkarteak antolatuta. Izen-ematea (doan): egunean bertan, 10:00etatik 10:45era, Herriko plazan.



## Abuztuak 14

### Igandea

**12:00** 2022ko Andramaixei hasiera emango dien **txupinazoa** botako da, Udal Musika Bandak **“Ondo pasau Andramaixek”** jotzen duen bitartean. Ondoren, Musika Bandaren, Parrokiko Abesbatzaren eta Iraurgi Abesbatzaren laguntzarekin, herritar guztiok **“Azkoitia”** abestuko dugu. Jarraian, Eltziegoko Dultzaineroek **“Kandido”** joko dute.

**12:30 Azkoitiko, Hondarribiko, Txantreako eta Buztintxuriko erraldoi eta buruhandien kalejira abiatuko da.**

**17:00 Haur parkea** Balda plazan (puzgarriak, gazteluak...)

**19:30 ROCKALEAN** musika kale ikuskizuna.

**19:50 Udal ordezkariak korporazioan Parrokira joango dira, Txalkor Txistulari Taldeak lagunduta**, “Alkate Soinua”ren doinupean.

**20:00** Herritarrek Ignacio Busca Sagastizabalen **“Salbea”** eta Aita Nemesio Otañoren **“Ave Maria”** abestuko dituzte Parrokian, zazpi eta bost ahotsetara, hurrenez hurren.

**23:00 BULEGO** taldearen kontzertua, Herriko plazan.

**23:00** Drogen kontsumoak eragiten dituen arriskuak  
**/02:00** prebenitzeko eta murrizteko zerbitzua egongo da eliza atarian, Eusko Jaurlaritzak babestuta.

**23:00** SexuBizi zerbitzua eskainiko da. Informazio, aholkularitza  
**/02:00** eta genero erasoen aurkako babes gunea.





# Abuztuak 15

## Astelehena

9:30 Eltziegoko Dultzaineroen kalejira.

10:00 Udal Musika Bandaren eta Txalkor Txistulari Taldearen kalejirak.

10:50 Udal ordezkariak korporazioan Parrokira joango dira, Herriko Musika Bandak eta Txalkor Txistulari Taldeak lagunduta, "Alkate Soinua"ren doinupean.

11:00 Meza Nagusian, herritarrek abestuko dituzte: Miguel M<sup>a</sup> Azpiaturen "Pakea Lurrean" eta "Agur Maria". Aita Nemesio Otañoren "O Sacrum convivium". F.Gorritiren "Agur Jesusen Ama". Organoan: Jose Luis Francesena. Zuzendaria: Carlos Muñoz

12:00 Erraldoi eta buruhandien kalejira, Eltziegoko Dultzaineroen konpainian

13:00 Udal Musika Bandaren eta Txalkor Txistulari Taldearen kontzertua, Kontzejupean. Egitaraua: **MUSIKA BANDA, Carlos Muñozen zuzendaritzapean** "Cielo Andaluz" Pascual Marquina "En un mercado persa" Albert Ketèlbey **TXALKOR TXISTULARI TALDEA, Pello Larrañagaren**

**zuzendaritzapean**

Kontrapasa  
Lapurtar motxa  
Betelu (fandango)

**MUSIKA BANDA, Carlos Muñozen zuzendaritzapean**

"5. Sinfonia (IV Finale) Antonin Dvorak  
"Perfect " Ed Sheeran  
"African Symphony" Van McCoy

17:00 **Pilota partidak**, Gurea Pilotalekuan. Masters Caixabank Txapelketa.

Alberdi - Eskiroz  
Egiguren V. - Bikuña  
Laso - Martija  
Altuna III. - Imaz

17:30 **Zezen txikiak eta poniak**, Trenbidearen Zumardian.

18:30 **FREESTYLE STREET SHOW** kale ikuskizuna, Balda plazan.

19:30 **THE MCKENSY´S CLAN BAND** kale ikuskizuna.

20:00 **Azkoitiko Gimnasia Erritmiko taldearen erakustaldia**, eliza atarian.

20:00 **Eltziegoko dultzaineroen kalejira.**

22:00 **X. Film Laburren Lehiaketako lanen aurkezpena eta sari banaketa.** Aurtengo gaia: "Gezurra". Herriko plazan.

23:45 **EGAN** taldearen kontzertua, Herriko plazan.



# Abuztuak 16

## Asteartea

**9:30** Eltziegoko dultzaineroen kalejira

**10:00** Txalkor Txistulari Taldearen kalejira.

**10:50** Udal ordezkariak korporazioan Parrokira joango dira, Txalkor Txistulari Taldeak lagunduta, "Alkate Soinua"ren doinupean.

**11:00** Meza Nagusian, herritar erlijioso eta lekaimeak partaide direla, **Parrokiko Abesbatzak** eta **Iraurgi Abesbatzak** abestuko dituzte: Pedro Jose Peñagarikanoren "Euskaldunen Meza", bost ahotsetara. Karl Jenkins-en "Ave Verum", lau ahotsetara. Peñafiorida kondearen "Aita Gurea". Haëndelen "Poz abestia". "Urrategiko Ama Birjinari Agurra". Organoan: Jose Luis Francesena. Zuzendaria: Carlos Muñoz.

**12:00** Erraldoi eta buruhandien kalejira.

**12:15** "Ohiko Aurrekua", Herriko plazan.

**13:00** Udal Musika Bandaren eta Eltziegoko Dultzaineroen kontzertua, Kontzejupean. Egitaraua:

**MUSIKA BANDA, Carlos Muñozen zuzendaritzapean**

"Musica i Poble" Ferrer Ferrán  
"Aires Vascos no.2" José Franco

**ELTZIEGOKO DULTZAINEROAK**

Ezkongaietan Zortziko

**MUSIKA BANDA, Carlos Muñozen**

**zuzendaritzapean**

"En los Jardines de un Monasterio" Albert Ketèlbey

"Rivieren Cyclus" Arie Malando

"Cenon Iribarren" (Eltziegoko dultzaineroekin batera) Iruñeko Gaiteroak

**17:00** Gazteentzako jolas dinamikoak, Balda plazan.

**17:00** "Adabaki" ikuskizuna, publiko guztiei zuzenduta. Parrokiaurrean.

**19:00** PLAZA DANTZAK, Sahatsa Dantza Taldearen eta herritarren partaidetzarekin, Parroki aurrean.

*Entsegua egingo da abuztuaren 10ean, 20:00etan, Baztartxo Antzokiko Sahatsa Dantza Taldearen lokalean. Entsegurako izena emateko 943 85 71 70 telefono zenbakira deitu behar da. Abuztuaren 16an, saioa baino ordu erdi lehenago ere, entsegua egingo da Parrokia aurrean.*

*Animatu zaitzte gure dantzak ikasi eta plazaratzera!*

**23:00** Suzko Erroberak, Vulcano etxearen eskutik.

**23:30** EN TOL SARMIENTO taldearen kontzertua, Herriko plazan.

**23:00** Drogen kontsumoak eragiten dituen arriskuak

**/02:00** prebenitzeko eta murrizteko zerbitzua egongo da eliza atarian, Eusko Jaurlaritzak babestuta.

**23:00** SexuBizi zerbitzua eskainiko da. Informazio,

**/02:00** aholkularitza eta genero erasoaren aurkako babes gunea.





# Abuztuak 17

## Asteazkena

**09:00 Azkoitiko kultur elkarteak** eraturiko XXXIX.

**/10:00 Inazio Iriarte Margo Lehiaketa-ko zigilu jartzea,** Portaleburu Erakusketa Aretoan. Lanak 14:00etatik 15:00etara bitartean jasoko dira toki berean.

**09:30 Herriko trikitilari eta dultzaineroen kalejira.**

**09:30 Herriko Ganadu Erakusketa,** Plazaberrin.

**11:00 Herriko trikitilari gazteen kalejira.**

**12:00 Erraldoi eta buruhandien kalejira, Txalkor Txistulari Taldeak lagunduta**

**12:00 Herri kirol jaialdia,** Herriko plazan. Aurkezlea: Juanjo Sagastibeltza.

### Aizkolariak

Txikia IV.ena – Otaño - Larrañaga – Eloy Ugaitz Mugerza (Enbor bat nork kolpe gutxiagotan ebaki)

### Harri-jasotzaileak

Goenatxol III.ena - 200 kiloko errektangularrarekin Eizmendi- 200 kiloko errektangularrarekin Udane Ostolaza – 65 kiloko errektangularrarekin

### Aizkolariak

Txikia IV – Otaño - Larrañaga – Ugaitz Mugerza (Enbor bana nork azkarrago ebaki)

### Froga mistoa

A taldea: Otaño, Txikia IV eta Eizmendi  
B taldea: Ugaitz Mugerza, Larrañaga eta Goenatxo III.ena (Aizkolariak bina enbor ebaki beharko dituzte txanda librean, eta harri-jasotzaileek 125 kiloko kubikoari bost jasoaldi eman).  
Udane Ostolaza - 40 kiloko kubikoarekin

Joxemari Esnaolak bost metroko altueran enborra moztuko du.

### Harri-jasotzaileak

Udane Ostolaza, 40 kiloko bolarekin.  
Eizmendi, 100 kiloko bolarekin.  
Goenatxo III.ena.

**12:30 Jubilatuen meza, Parrokian.**

**14:30 Jubilatuen anai-arreba arteko bazkaria,** Kiruri jatetxean. Bertan, aurten 90 urte betetzen dituzten herritarrak omenduko dira.

**17:30 "Txiki Chef" eta "Jolasak: Skate eta Formula1 simuladoreak",** Herriko plazan.

**18:00 Dantzari Bikote Helduen Txapelketa,** Balda plazan.

**19:30 XXXIX. Inazio Iriarte Margo Lehiaketako sari banaketa,** Portaleburu Erakusketa Aretoan.

**22:00 Fun&Go taldearekin erromeria, Balda plazan.**

**23:00 Suzko Zezena,** Balda plazan. Ondoren erromeriak jarraituko du.





## Abuztuak 18 Osteguna

**11:00** Atletismo saioa, Balda plazan. Ondoren, XIX. Andramaixetako Milia eta XVIII. Kale atletismo erakustaldia, Xeye atletismo taldeak antolatuta.

**14:30** Bazkari herrikoia, Herriko plazan.

**16:30** BRINCADEIRA BATUKADA taldea, herriko kaleetan.

**17:30** Apar Festa eta Ur Jolasak, Balda plazan.

**18:30** Zezenak, Plazaberrin.

**22:00** MARIACHI IMPERIAL taldearekin dantzaldia, Herriko plazan.

**00:00** Suzko Zezena, Herriko plazan.

**00:15** PERKULIGHTS BATUKADA taldea, herriko kaleetan.

**23:00** Drogen kontsumoak eragiten dituen arriskuak prebenitzeko eta murrizteko zerbitzua egongo da eliza atarian.

**23:00** SexuBizi zerbitzua eskainiko da. Informazio, aholkularitza eta genero erasoen aurkako babes gunea.



## Abuztuak 20 Larunbata

**22:00** XII. DIVA - SAT Idi dema saria, herriko probalekuan.

## Abuztuak 22 Astelehena

**22:00** XII. DIVA - SAT Idi dema saria, herriko probalekuan.





## AZKOITIA BERRIAREN SORRERA

*XIV. eta XV. mendeetan*

Iraurgi bailaran gaude. Baldatarrak eta haien senideak nahi bezala zebiltzan gure lurraldean, oinaztarrekin eta loiolatarrekin batera. Leinu haiek bihurtu ziren nagusi gure ingurumariotan. Botere eta kontrol goseak aurrez aurre ipinitako familiak. Ahaltu haiek bi bandoetako baten alde egitera behartu zituzten bertako biztanleak: dela ganboatarren alde, dela oinaztarren alde, segun eta jaun baten edo bestearen mende zeuden.

Errege ordezkari batek 1319ko otsailean emandako epaiarekin bat, absolbitu egin ziren zenbait azkoitiar, zeinei oinaztarrekin jardun izana leporatzen baitzitzaizen Baldako Santa Maria monasterioa erretzen, bai eta Baldako jauna, haren semea eta orube hartako beste zenbait senitarteko hiltzen ere. Horixe da udal artxibategian gure hiribilduari buruz topatu dugun lehen pasartea.

Gipuzkoa barnealdeko lurraldea kontrolatzeko bandalismo eta beligerantzia garai ilun haien ondoren, aldatzeko garaia iritsi zen. Agintean zeuden errege etheen estrategia ez zen jada lurraldeak gero eta jaun boteretsuagoen bidez menperatzea, baizik eta hiribilduetako jendeak leialtasuna zin egitea, trukean ematen zitzaizkien pribilegioak onetsi ondotik. Testuinguru hartan egin zieten aurre Azkoitiak eta Azpeitiak ahaide nagusien azken erronkei.

Giro hartan sortu zen Azkoitia, eta, horregatik, 700. urteurrenena hurbiltzen ari garen honetan, interesgarria da inguruabar haiei erreferentzia egitea. Alfontso XI.a Gaztelakoak 1324an emandako errege gutunari esker sortu zenetik, ausartzen naiz esatera ibilbide zaileko proiektua izan zela. Azkoitia sortu bezain pronto, jaun bandokideek armak hartu zituzten. Handik berehalaxe hasi zen izurri beltzaren pandemia izugarria zabaltzen, eta depresiok

hartu zituen bazterrak. Hori horrela, San Martin de Azkoitia de Iraurgiko herritarrek, hiribildua sortu eta zazpi urtera, San Martin muinotik beste ertzean erositako ibarrera eramateko eskatu zioten erregeari, Baldatik gertuago –gaur egun Plazaberri izenez ezagutzen dugun tokira–, Miranda de Iraurgi izenarekin.

Aldaketa haiek gorabehera, hiribilduaren historiak jaunen boterearen mende jarraitu zuten mende batez baino gehiagoz, baita Saiazko Alkatetza Nagusiren injerentziaren pean ere. Alkatetza hark Gipuzkoako erdialdeko lurralde zehaztugabe bat biltzen zuen, hasi Errezil, Azkoitia eta Azpeititik, harik eta kostalderaino iritsi arte, eta ziurrenik Nafarroak eremu horretan zuen gobernuordetzaren hondarra zen.

Alabaina, 1413an elkartu ziren azkoitiarrak, eta herri bat eratzeko balioen gainean diseinatu zuten Azkoitia berria. Batez ere, beharrezko lurralde eta jurisdikzio batasunarekin ekin nahi zioten bizitzari. Hala, bertako bizilagunek –hala harresien barruan bizi zirenek, nola harresietatik hurbilago eta urrunago bizi zirenek– beraiek aukeratutako alkate bakar bati men egiteko konpromisoa hartu zuten, behin betiko, hiribildu baten eskubide eta betebeharrak komunekin, hala nola defentsa, merkataritza, lurralde kontrola eta abar. Haiek hasi ziren 1484an gure udal ordenantzak idazten, eta haiek markatu zuten aro haren amaiera.

Miranda de Iraurgik hartu zion lekukoa Beidazar muinoko San Martin de Iraurgin eraturiko garai bateko hiribilduari, eta, handik aurrera, Azkoitia izenez egingo da ezagun.

\*Irakurri artikulu osoa [www.azkoitia.eus](http://www.azkoitia.eus) atarian. Puedes leer el artículo completo en [www.azkoitia.eus](http://www.azkoitia.eus)

## EL COMIENZO DE UNA NUEVA AZKOITIA

*En el siglo XIV y XV*

Estamos en Iraurgi. Los Balda y su familia, junto a los Oñaz y los Loyola campan a sus anchas por nuestro territorio. Son los linajes que se han erigido en líderes de nuestra zona. Familias enfrentadas por sus ansias de poder y control. Poderosos que obligaron a los habitantes del lugar a decantarse por uno de los bandos señalados como ganboinos y oñacinos, según dependencia de uno u otro señor.

De conformidad con la sentencia emitida en febrero de 1319 por un representante real, se absuelve a varios vecinos de Azkoitia de haber colaborado con los del bando de Oñaz en la quema del monasterio de Santa María de Balda, así como en la muerte del señor de Balda, su hijo y otros parientes afines a este solar. Esta es la primera cita que hemos encontrado de nuestra villa en el archivo municipal.

Después de estos oscuros tiempos de verdadero vandalismo y beligerancia de estos bandos para el control del territorio interior de Gipuzkoa, llegó la hora del cambio. La estrategia de las monarquías reinantes ya no pasaba por dominar los territorios a través de unos señores cada vez más poderosos, sino por las villas regidas por gente que les juraba fidelidad, aceptando los privilegios que se les concedían. En ese marco, Azkoitia y Azpeitia se enfrentarán a los últimos desafíos de los llamados Parientes Mayores.

Azkoitia se creó en este ambiente y por ello en estas fechas en las que nos aproximamos a su 700 aniversario, es interesante hacer una referencia a este contexto. Desde su fundación merced a la carta real otorgada por Alfonso XI de Castilla en 1324, me atrevo a decir que fue un proyecto de difícil trayectoria. Nada más fundarse Azkoitia, “los señores banderizos” alzaron sus armas, pronto comenzó a transmitirse también la terrible pandemia de “la peste negra” y la depresión general se adueñó del entorno. De esta forma, los vecinos de San Martín de Azkoitia de Iraurgi, siete años después de su fundación solicitaron al mismo Rey la traslación de la villa desde la colina de San Martín a la vaguada que habían comprado en la otra orilla, más cerca de Balda y que

hoy conocemos como Plaza Berri, con el nombre de Miranda de Iraurgi.

A pesar de estos cambios, su historia siguió dependiendo por más de una centuria del poder de los Señores y de la injerencia de la Alcaldía Mayor de Sayaz. Esta era una alcaldía que aglutinaba un impreciso territorio del centro de Gipuzkoa desde Errezil, Azkoitia y Azpeitia hasta la costa, que posiblemente fue residuo del poder que sustituyó a una de las Tenencias con las que gobernaba Navarra en esta zona.

Será sin embargo en 1413, cuando los azkoitiarras se reunieron para diseñar una nueva Azkoitia con los valores constituyentes de un pueblo. Sobre todo para iniciar una vida con la unidad territorial y jurisdiccional necesaria. De esta forma sus vecinos, los que vivían dentro de las murallas, y los que habitaban cerca y lejos de ellas, se comprometieron a acatar a un sólo alcalde por ellos elegido y definitivamente con los derechos y obligaciones comunes a una villa, tales como su defensa, su comercio, su control territorial, etc. Serán ellos los que comenzarán a redactar nuestras ordenanzas municipales en 1484 y que marcarán el fin de una época.

Esta es la Miranda de Iraurgi que coge el testigo del vestigio de la antigua villa creada en San Martín de Iraurgi, situada en el lugar del “morcuero de Beidazar”, la que se conocerá para siempre como Azkoitia.

*Ondo pasau andramaixek !!!*

**Juan Bautista Mendizabal Juaristi**

*Azkoitiko kronista ofiziala*

# Andramaixek 2022

Gora Azkoitti!

## 13 de Agosto, Sábado

**11:00 Subida a Mártires**, con salida desde Herriko plaza. Organiza la Asociación Ciclista Jokin Ormaetxea. Inscripción el mismo día de 10:00 a 10:45h. en Herriko plaza.

## 14 de Agosto, Domingo

**12:00** Lanzamiento del chupinazo que dará inicio a las fiestas de Andramari de 2022, mientras la Banda Municipal de Música interpreta la melodía "Ondo pasau Andramaixek". A continuación, junto con la Banda de Música, el Coro Parroquial y el Coro Iraurgi, todas y todos cantaremos "Azkoitia". Finalmente, los Dulzaineros de Elciego tocarán "Cándido".

**12:30 Pasacalle de Gigantes y Cabezudos** de Azkoitia, La Txantrea y Buztintxuri.

**17:00 Parque infantil** en Herriko plaza (hinchables, castillos...).

**19:30 "ROCKALEAN"**. Espectáculo musical callejero.

**19:50** La Corporación Municipal asistirá a la Parroquia, acompañada por Txalkor Txistulari Taldea, al son de "Alkate Soinua".

**20:00** Las vecinas y vecinos cantarán la "Salve" de Ignacio Busca Sagastizabal y el "Ave Maria" del padre Nemesio Otaño a siete y a cinco voces, respectivamente.

**23:00** Concierto de **BULEGO** en Herriko plazan.

**23:00 /02:00** Servicio para la prevención y reducción de los riesgos que conlleva el consumo de drogas. Delante de la Parroquia.

**23:00 /02:00** Servicio SexuBizi. Espacio de información y protección ante las agresiones de género.

## 15 de Agosto, Lunes

**09:30 Pasacalle con los Dulzaineros de Elciego.**

**10:00 Pasacalle de la Banda de Música y del grupo de txistularis Txalkor.**

**10:50 La Corporación Municipal asistirá a la Parroquia, acompañada por Txalkor Txistulari Taldea, al son de "Alkate Soinua".**

**11:00 En la Misa mayor**, las azkoitiarras y los azkoitiarras cantarán: "Pakea Lurrean" de Miguel M<sup>º</sup> Azpiazu, a cinco voces. "Agur Maria" de Miguel M<sup>º</sup> Azpiazu a cuatro voces. "O Sacrum convivium" del padre Nemesio Otaño. "Agur Jesusen Ama" de F.Gorriti.

Al órgano: Jose Luis Francesena. Director: Carlos Muñoz

**12:00 Pasacalle de gigantes y cabezudos, acompañado por los Dulzaineros de Elciego.**

**13:00** Concierto de **la Banda de Música y del grupo de txistularis Txalkor** en el Kontzejupe.

**17:00 Partidos de pelota** en el frontón Gurea.

**17:30 Vaquillas y ponis** en Trenbidearen Zumardia.

**18:30 "FREESTYLE BIKE SHOW"**. Espectáculo callejero en Balda plaza.

**19:30 THE MCKENSY'S CLAN BAND**, espectáculo callejero.

**20:00 Exhibición de Gimnasia Rítmica** delante de la Parroquia.

**20:00 Pasacalle con los Dulzaineros de Elciego.**

**22:00 X. Concurso de Cortometrajes. Proyección y entrega de premios**, en Herriko plaza.

**23:45** Concierto de **EGAN** en Herriko plaza.

## 16 de Agosto, Martes

**09:30 Pasacalle con los Dulzaineros de Elciego.**

**10:00 Pasacalle del grupo de txistularis Txalkor.**

**10:50** La Corporación Municipal asistirá a la Parroquia, acompañada por Txalkor Txistulari Taldea, al son de "Alkate Soinua".

**11:00** En la Misa Mayor, con la participación de los religiosos y monjas del pueblo, el Coro parroquial y el Coro Iraurgi cantarán "Euskaldunen Meza" de Pedro Jose Peñagarikano a cinco voces; "Ave Verum" de Karl Jekins a cuatro voces; "Aita Gurea" del Conde de Peñafiorida Madina"; "Poz abestia" de Haëndel y "Urrategiko Ama Birjinari agurra".

Al órgano: Jose Luis Francesena. Director: Carlos Muñoz

**12:00 Pasacalle de Gigantes y cabezudos.**

**12:15** El **tradicional aurreku**, en Herriko plaza.

**13:00 Concierto de la Banda Municipal de Música y los Dulzaineros de Elciego** en el Kontzejupe.

**17:00 Juegos dinámicos para los jóvenes** en Balda plaza.

**17:00 "Adabaki"**, espectáculo de clown para todos los públicos, delante de la Parroquia.

**19:00 PLAZA DANTZAK**, con la participación de miembros del grupo de baile Sahatsa y azkoitiarras. Delante de la Parroquia.

**23:00 Fuegos artificiales**, de la mano de la pirotecnia Vulcano.

**23:30** Concierto de **EN TOL SARMIENTO** en Herriko plaza.

**23:00 /02:00** Servicio patrocinado por el Gobierno Vasco para la prevención y reducción de los riesgos que conlleva el consumo de drogas. Delante de la Parroquia.

## 17 de Agosto, Miércoles

**09:00 /10:00** Sellado del "XXXIX. Concurso de Pintura Inazio Iriarte", organizado por Azkoitiko Kultur Elkarte. Los trabajos terminados se entregarán entre las 14:00 y las 15:00 horas en la sala de exposiciones Portaleburu.

**09:30 Pasacalle de los trikitilaris y dulzaineros de Azkoitia.**

**09:30 Exposición de ganado** en Plazaberri.

**11:00 Pasacalle de trikitilaris jóvenes de Azkoitia.**

**12:00 Pasacalle de gigantes y cabezudos**, acompañado por el grupo de txistularis Txalkor.

**12:00 Festival de deporte popular**, en Herriko plaza.

**12:30 Misa de la Asociación de Jubilados Plaza Ondo.** En la Parroquia.

**14:30 Comida de fraternidad de la Asociación de Jubilados Plaza Ondo. Homenaje a las mujeres y hombres que cumplen 90 años** en 2022.

**17:30 Taller "Txiki Chef" y Juegos: Skate y simuladores de Fórmula 1**, en Herriko plaza.

**18:00 Concurso de Baile Suelto de Parejas** en Balda plaza.

**19:00 Pasacalle de Personajes Mitológicos Vascos.**

**19:30 Entrega de premios del "XXXIX. Concurso de pintura Inazio Iriarte"**, en la sala de exposiciones Portaleburu.

**22:00 Romería con Fun&G** en Balda plaza.

**23:00 Toro de Fuego**, en Balda plaza. Seguidamente, continuará la romería.

## 18 de Agosto, Jueves

**11:00** Pruebas de atletismo, en Balda plaza. A continuación, "XIX. Milla de Andramaris" organizada por Xeye Atletismo Taldea.

**14:30 Comida popular**, en Herriko plaza.

**16:30** El grupo **BRINCADEIRA BATUKADA** por las calles.

**17:30 Fiesta de espuma**, en Balda plaza.

**18:30 Vaquillas** en Plazaberri.

**22:00** Baile con **MARIACHI IMPERIAL** en Herriko plaza.

**00:00 Toro de fuego** en Herriko plaza.

**00:15 PERKULIGHTS BATUKADA**, por las calles.

**23:00 /02:00** Servicio patrocinado por el Gobierno Vasco para la prevención y reducción de los riesgos que conlleva el consumo de drogas. Delante de la Parroquia.

**23:00 /02:00** Servicio SexuBizi. Espacio de información y protección ante las agresiones de género. protección ante las agresiones de género.

## 20 de Agosto, Sábado

**22:00 XII. Trofeo DIVA - SAT de arrastre de bueyes**, en el probadero municipal.

## 22 de Agosto, Lunes

**22:00 XII. Trofeo DIVA - SAT de arrastre de bueyes**, en el probadero municipal.

# Ondo pasa, pasatu gabe!

**Azkoitiak ez du eraso matxista, arrazista,  
homofobo edo bestelakorik onartzen.**

**Indarkeriaren aurrean  
tolerantziarik ez!**

**¡Tolerancia cero frente a la violencia!**

- **Larrialdietarako 112**
- **Azkoitiko Ertzaintza 943 08 37 80**
- **Udaltzaingoa 943 85 71 71**
- **Indarkeria matxista. 24 orduko telefono bidezko arreta zerbitzua: 900 840 111 / 016**